

# Bartzelonako hilak lurperatuta ondorio politikoak gelditu dira

**Eztabaidatzeko ere handiegia izan da Bartzelonako sarraskia. Heriotz kate luzea ikusi du Euskal Herriak, baina Bartzelonako sotano batean hildako hamabost —hamazazpi azkenean— pertsona errugaberen zama astunegia zen horretaz hitzegin ere egiteko. Zaurituak gelditzen dira, eta komentario politikoak egitea lanbide duenarentzako, ondorio politikoaren erreferentzia hotzagoak.**

Loiolako eraso eta Tarragonakoa ziren ofentsiba berriaren abiso argiak. Ostirale arratsaldean, ekainaren 19an, lehendabizi zauritu batzuk baino produktu ez zuen bonba baten berri izan zuten Korputsetako zubi lasaia dastatzen zuten herritarrek. Ordubeteren buruan, hamabost ziren arratsaldeko laurak eta laurdenetan lehertutako bonbak hildakoak. Astelehenerako, hamazazpi.

## Hamazazpi heriotz neurri ororen gainetik

Bartzelonako atentatuaren ondoren go erreazioak bereziak izan dira. Atentatuak berak giro berezia sortu zuelako: nondik heldu jakin ezean bezala, neurri handiegikoa bailitzan. Euskaldunokiko sinpatia handia duen Katalunian, obreiro auzo batean, ETaren ohizko objektiboetako ez den batean...

Joan den udan Madrilen ETak berak Guardia Civilaren autobus bat lehertu eta 14 agente hil zituen ondorengo giro eta erreazio ezberdinak ziren oso. Baina konplikazioak ere kaso honetan ugarituko ziren. Bonba jarri zutenek populazio zibila arriskuan jartzen zuten, baina abisoa ere emana zuten garaiz. Hankasartze bat zen, geroztik ETak berak aitortu duen lege, baina batek baino gehiagok egindako hankasartze bat baino gehiagoren ondorio.

Kronika politikoak egiten dituenaren lana gauzen ikuspegi politikoa aztertzea da, inhumano agertzeko beldurrak uxatuta. Bonba honek, hasteko, lehendik ere ondoegi konpontzen ez ziren ezker abertzale katalan eta euskaldu-

nen arteko tirabira areagotu du, eta atentatu horrek bere arrastoa utziko du.

## HBren kritika eta ETaren aitorpena

Herri Batasunak ETaren ekintza bat kritikatu du, ez bakarrik ekintza, hola-ko ekintzak egiteko modua ere bai. Komentarista politiko batzuentzako hipokresia hutsa da; Herri Irratiko Mariano Ferrer-entzako, aldiz, tikiak izan arren fenomeno luzeak hasten dituzten urratsetako bat izan daiteke HBren aldetik, ETaren bidetik urrutiratzen joateko posibilitatea aditzera emanez.

ETarentzako, kotxe-bonba erabiltzearen arriskuak egia odoltsu bihurtzearen ondorioak bereganatu beharra dakar. Tantaka gertatuz zihoazen azken urte pare honetan desgraziak zibilen artean. Madrilen, supermerkatu batzuen aparkalekuetan han ere, desaktibatza joandako polizientzako tranpa bihurtu zen bonba. Bartzelonan, atentatu mota horrek ekarri ditzakeen ondoriorik izugarrienak jazo dira.



Hamazazpi gorputz kixkaliren ebidentziak ETaren estrategiaren gogorra azpimarratzen dute. Baina atentatu horretan ere gelditu da ETaren sinesgarritasuna azalean: aurretik abisatu zuen hiru bider hiru lekutan, Parisen libanotarrek egindako leherketetatik desmar-katuz. Atentatuaren kontrako samina eta haserre, horregatik, ETaren eta bere aldekoen kontra haina aparkalekuak hustu zitzaizketen eta hustu ez ziztuztenen kontra zuzendu dira.

## Kolumnista espainolak eta erreazioak

Komentarista politikoen artean, Estatu Espainolean, bi moztetako erreazioak eman dira Bartzelonako atentatuaren ondoren. Gehienak gertakizunaren neurri izugarriaren aurrean motz gelditu dira. Nola edo hala bukatu behar da terrorismoa, haserrearen gainetik burua erabili behar dugu... «El País»ek topikoei kolore gehiago eman nahi izan die, baina trajadiaren aurrean muela okurrente bezala gelditu da.

Bi kolumnista nabarmendu dira, atentatu honekin bonba-jartzaileen eta laguntzaileen artean haina tentsio berriro ere gainerako indar politikoen artean jeneratu dela ohartuz. Antxon Sarasqueta: «No existe ningún signo de que el Gobierno haya comprendido la existencia de un diseño independentista equivalente a la liberación nacional argelina. El Gobierno no mantiene una política dirigida contra ese diseño en toda su complejidad. ¿Hasta dónde se cuenta con la participación de los nacionalistas?». Neurri espezpionalak eskatzen ditu.

Emilio Romero: «Así no podemos estar toda la vida. Nunca se me quitará de la cabeza la iniciativa de un pacto de Estado, sugerida por Tarradellas hace tiempo. Es un camino. Es un problema que exige más talento que irritación».

I. ZUBIONDO